

BILBOKO UDALAK FAMILIAK "OPORRAK BAKEAN" PROGRAMAN PARTE HARTZERA ANIMATZEN DITU, SAHARAR ERREFUXIATU ADINGABEAK HARTZEKO, DATORREN LARUNBATEAN, OTSAILAREN 15EAN, INFORMAZIO-JARDUNALDI BAT ANTOLATUZ

- Emakumeen Plazan jaima erraldoi batek informazio-topaketa hau hartuko du 11:00etatik 14:00etara; parte hartzen dutenek Saharako egunerokotasuna gertutik ezagutu ahal izango dute. Bestalde, tea dastatu, henna-tailrretan edo zurezko jokoetan parte hartu ahal izango dute, besteak beste.
- Udalak Bilboko familiak animatu nahi ditu, alde batetik jardunaldi honetan parte hartzera, eta bestetik ume saharar errefuxiatiak hartzeko programan izena emateko, udan 8 eta 9 urte bitarteko umeak basamortuko baldintza gogorretatik aldentzeko.

(*Bilbao, a 11 de febrero de 2025*).- Bilboko Udalak hiriko familiak animatu nahi ditu "**Oporrak bakean**" programan parte hartzeko. Saharar adingabe errefuxiatiak aldi baterako hartzeko programa da. Parte-hartze hori sustatzeko, Udalak **informazio-topaketa** bat antolatu du **11:00etatik 14:00etara**, datorren **larunbatean, otsailaren 15ean, Emakumeen Plazan**, Bailen kalearen ondoan.

Bertaratzen diren pertsonek **Saharako bizimoduaren adierazgarri** den **jaima bisitatu** ahal izango dute, herri honen egunerokotasuna nolakoa den gertutik ezagutzeko, hainbat jarduera kultural eta ludikoenkin. Ondoan jarriko den karpan, **tea dastatu ahal izango da, baita henna tailerretan, egurrezko jokoetan eta hondar tailerretan parte hartu ere**, besteak beste. Horrela, jarduera honekin, sahararrak bizi duten errealitatea gertutik ezagutu ahal izango dute. Gainera, "**Oporrak Bakean**" programari buruzko informazioa jasotzeko aukera izango dute.

Bilboko Udalak herritar guztiak animatzen ditu **udan 8 eta 9 urte bitarteko saharar adingabeak** euskal familiekin bizitza ahalbidetzen duen ekimen solidario honekin bat egin dezaten. Programa honen helburua, txikiak basamortuko baldintza gogorretatik aldi baterako aldentzea da. Hemen dauden bitartean, garatzeko elikadura egokia eskainduko zaie eta azterketa medikoak egin ahal izango dute, euskal kulturaren eta saharar kulturaren arteko harremana sustatzen duten bitartean.

Herri Sahararrak **ia 50 urte** daramatza errefuxiatu kanpamentuetan bizirauten, munduko basamorturik idorrenetako batean, euren lurraldera itzuli ezinik. Kanpamentu horietan **14 urtetik beherako 56.000 ume bizi dira**, eta horietatik **%30ek hazkunde gabeziak dituzte, klima gogorra eta elikadura baldintzen ondorioz**. "**Oporrak bakean**" programari esker, adingabe horiek esperientzia aberasgarria bizi dezakete, euskal familiekin harremanak sortuz eta bi herrien arteko lotura indartuz.

SARE SOZIALAK:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK-TOK](#)
- **BILBAO INTERCULTURAL:** [FACEBOOK](#) | [X](#)

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO ANIMA A PARTICIPAR A LAS FAMILIAS EN EL PROGRAMA “VACACIONES EN PAZ” PARA ACOGER A MENORES REFUGIADOS SAHARAUIS, CON UNA JORNADA INFORMATIVA EL PRÓXIMO SÁBADO 15 DE FEBRERO

- Una jaima gigante en la Plaza de las Mujeres acogerá el encuentro informativo entre las 11:00 y 14.00 horas; quienes participen podrán conocer de cerca el día a día de Sahara, además de degustar té, participar en talleres de henna o juegos de madera, entre otras actividades.
- Desde el consistorio se quiere animar a las familias bilbainas a participar tanto en esta jornada como a colaborar con este programa destinado a acoger temporalmente durante el verano a refugiados saharauis menores de entre 8 y 9 años para alejarles de las duras condiciones del desierto.

(Bilbao, a 11 de febrero de 2025).- El Ayuntamiento de Bilbao hace un llamamiento a las familias para animarlas a formar parte de “**Vacaciones en Paz**”, un programa de acogida temporal de menores refugiados saharauis. Para incentivar esa participación el Ayuntamiento organiza un encuentro **a partir de las 11:00 y hasta las 14.00 horas**, este próximo sábado **15 de febrero en la Plaza de las Mujeres**, junto a la calle Bailén.

Las personas que se acerquen podrán **visitar la jaima**, representativa del **modo de vida del Sahara**, para conocer de cerca cómo es el día a día de este pueblo, a través de una serie de actividades culturales y lúdicas. En la carpa que se instalará al lado, se podrá **degustar té, participar en talleres de henna o con juegos de madera y talleres de arena**, entre otras. De esta forma podrán conocer de cerca la realidad que viven y también informarse de primera mano sobre el programa “Vacaciones en Paz”.

Desde el Consistorio bilbaíno se anima a toda la ciudadanía para que se sume a esta iniciativa solidaria que permite que **menores saharauis de entre 8 y 9 años** convivan con familias vascas **durante el verano**. El objetivo de este programa es alejarlos temporalmente de las duras condiciones del desierto, en el que se registran hasta 50º a la sombra, ofreciéndoles una alimentación adecuada para su desarrollo, y revisiones médicas al mismo tiempo que se fomenta la relación entre la cultura vasca y saharaui.

El pueblo saharaui lleva **casi 50 años** sobreviviendo en campamentos de personas refugiadas ubicadas en uno de los desiertos más áridos del mundo y sin poder volver a su tierra. En estos campamentos residen **56.000 menores de 14 años** y de los cuales el **30% sufre déficit de crecimiento** a causa de las **duras condiciones climáticas y de alimentación**. Gracias a programas como “Vacaciones en Paz”, estos menores pueden vivir una experiencia enriquecedora, creando lazos con familias vascas y fortaleciendo la relación entre ambos pueblos.

REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK-TOK](#)
- **BILBAO INTERCULTURAL:** [FACEBOOK](#) | [X](#)